

Bosgarren bilera



Sinodo-seneko Eleizaren alde
alkartasuna | partaidetza | misioa

GUZTION ERANTZUKIZUNA GUZTION MISIOAN

Sinodo-senak Elizaren misioaren sen izan behar du, eta misio horretan bataiatu guztiok parte hartu behar dugu. Sinodo-sen horrek "Berri Ona hedatzeko erantzukizuna eta mundu eder eta bizigarriagoa eraikitzeko konpromisoa elkartean parte hartuz garatzera garamatza".

1.- OTOITZA

Zati hau bileraren hasieran egingo bada ere, egokia da partaide bakoitzak aurretik etxean prestatzea.

- **Laguntza-erregua Espiritu Santuari bilerari ekiteko:**
"Adsumus, Sancte Spiritus"...

- **San Paulo Apostoluak Filipostarrei idatzitako (1,3-7,9-11)**

«Zuetaz oroitzen naizen bakoitzean eskerrak ematen dizkiot neure Jainkoari. Pozik egiten dut zuen guztion alde otoitz beti, lehenengo egunetik orain arte berri onaren zerbitzuan lankide izan baitzaituztet. Badakit ziur, zuengan hain lan ederra hasi zuenak burutu ere egingo duela, Kristo Jesus berriro agertuko den eguna arte. Bidezko iruditzen zait zuen guztionganako dudan sentipen hau, barru-barruan baitzaramaztet; izan ere, partaide zaituztet Jainkoarengandik hartu dudan dohainean, bai preso nagoen honetan, bai berri ona defendatzeko eta sendotzeko aukera dudanean ere. Eta hauxe eskatzen dut otoitzean: zuen maitasuna izan dadila ezagueraz geroz eta jantziagoa eta sentiberatasunez biziagoa, egokien dena bereizten jakin dezazuen; horrela, Kristo agertuko den egunean garbi eta errugabe aurkituko zaituzte, Jesu Kristok guregan betetzen dituen egintza onetan aberats, Jainkoaren aintza eta gorespenerako».

(ISILUNEA)

- **Prestatzeko Agiritik (PA 15 eta 12)**

“ Bidea elkarrekin egitean», eskaria egiten diogu Espirituari: lagun diezagula dohainen, karismen eta ministerioen aniztasuna batasunean osatzen duen elkartasuna, misiorako ezinbesteko dela ulertzen: Sinodo-seneko Eliza, «abian» den Eliza da, Misio-eliza, «ateak zabalik» dituen Eliza (EG, 46) (PA 15).

“ Jainkoaren Herriko kideak Bataioaren bidez elkarturik daude eta, «Kristok, hala nahita, irakasle, misterioen banatzaile eta besteentzat artzain izendatuak izan badira ere, benetako berdintasuna dago guztien artean duintasunari dagokionez eta Kristoren Gorputza eraikitzeko fededun guztien ekintza berari dagokionez» (LG, 32). Beraz, Bataiatu guztiak, Kristoren apaiz, profeta eta errege egitekoan parte hartzean, «beren karismen, bokazioaren, ministerioen aberastasun anitz eta ordenatuaren gauatzean», ebanjelizatzearen eragile eraginkor dira, banaka nahiz Jainkoaren Herriko kide bezala (PA 12).

(ISILUNEA)

- **Otoitz-giroan**, idazki hauek eta geure bizipena kontuan hartuta, **hausnar ditzagun ondorengo galderok:**

Nola, eta eliz bizitzako zein eremutan, sustatzen dira erantzunkidetasuna, laiko ministerioak, fededunek erantzukizunak beren gain hartzea?

Nola gauzatzen da agintea eta partaidetza gure Elizan?

Nola laguntzen die kristau elkarteak dagokien kristau misioaz jabeturik gizartearen zerbitzura ari diren pertsonei?

(ISILUNEA)

2.- BILERAREN GARAPENA

- **Taldekide bakoitzak batera** jarriko du bere otoitzaren eta galderen inguruko hausnarketaren emaitza. **Entzun egingo dugu bakarrik (ez da eztabaidarik izango).**

Jarraian, isilunea egin.

Entzundakoa barneratzeko unea da.

(ISILUNEA)

- **Partaide bakoitzak entzundakoak aditzera eman diona** eta isilunean barneratu duena batera jarriko du. Elkarrizketan jardun daiteke, baina entzutea eta errespetua sustatuz, Espiritua taldekide guztien berben bitartez agertzen zaigula jakinda. **Berriz ere isilunea egin.**

(ISILUNEA)

- **Partaideek aurreko ataletatik deigarrien gertatu zaiena jakinaraziko dute.** Bizi, batera jarri eta entzundakoaren arabera, galdera egingo diote beren buruari:

Bataiatu guztioi dagokigun erantzukizunari dagokionez, zein hiru urrats ematera bultzatzen gaitu Espirituak elkarrekin joate horretan aurrera egiteko?

3.- AZKEN OTOITZA

Gure Aita, zeruetan zarana...

Adsumus, Sancte Spiritus

Laguntza-erregua Espiritu Santuari sinodo-bilerari ekin aurretik

Hemen gauzkazu, Espiritu Santua,
zeure izenean batuta.

Gure benetako aholkulari zarena:
zatoz guregana, gure alde egin,
sartu gure bihotzetan.

Erakutsiezaguzu bidea
erakutsi helmugara nola iritsi.

Ez gaitzela okerreko bidetik joan,
makal eta bekatariei gertatzen zaien bezala

Ezjakintasunak ez gaitzala
gezurrezko bideetatik eraman.

Emaiguzu bereizketaren dohaina,
gure ekintzen oinarrian ez dadin
aurreiritzi eta burutapen faltsurik izan.

Eraman gaitzazu batasunera zuregan,
egia eta zuzentasunaren bidetik
aldendu ez gaitzen,
lur honetako erromesaldian
betiko bizia jadesten ahalegindu baizik.

Zeuri eskatzen dizugu,
Aita eta Semearekin bat,
sasoi eta leku orotan jarduten duzun horri,
gizaldi eta gizaldietan. Amen.

Vatikano II.aren saio bakoitzaren hasieran, 'Adsumus Sancte Spiritus' (latinezko jatorrizko otoitzaren hasiera: "Zure aurrean gagoz, Espiritu Santua") otoitz otoitza egin zen. Sevillako San Isidorori (k. 560-636) egotzi zaion otoitz hau aspalditik eta luzaroan egin izan da Kontzilio, Sinodo eta Elizaren beste hainbat bileratan. Sinodo-seneko bideari ekiteko deialdia egitean, otoitzak arren eskatzen dio Espiritu Santuari guregan jardun dezan graziaz beteriko elkarte eta herri izan gaitzen. 2021-2023 Sinodoari begira, bertsio sinplifikatua proposatzen dugu, edozein liturgia talde edo batzarrek errazago erabil dezan.